

Judit Garciari elkarrizketa.

2023 martxoaren 3an, Etxeberri Goikoa baserrian (Olaberria). Eguerdiko 13:00ak.

IM: Kaixo Judit! Seguro lan eta lan harrapatu zaitugula hemen baserrian. Zeintzuk dira sasoi honetan Etxeberri Goikoa bezalako baserri batean aurrera eramane behar diren lanak?

JG: Garai honetako lanak izaten dira urte osoko lanak. Lehenengo behiei belarrondu eman, eta, hor egoten dira patioan tarte batez. Beroa egiten duen garaian larretik ekartzen ditugu eta garai honetan normalean gaua pasatzen dute. Gero egunean zehar, aterri badago, kanpoan ere bai. Eta orduan egunero izaten da behia jetzi eta esne horrekin astean hiru bat aldiz gazta egiten dugu. Gazta mota diferenteak egiten dugu. Gero sarten dira repartoak, salmentak, papeleoa ere bai... gero arratsaldean berriz behiak jectzen ditugu, egunean zehar izaten dira beti ba itxitura bat konpondu behar dela, edo bolak ekarri behar direla... urtean zehar mantentzen diren lanak. Gero udaberritik aurrera hasiko dira belarrarekin lotutako lanak, beste sasoi batzutan igual azoka gehiago egiten ditugu eta lan horiek ere izaten ditugu. Baina bueno, hemendik aurrera hasiko da esne produkzio altuagoa, edo hasita dago pixkat. Esne bolumen gehiagorekin lanak ere ugaritu egiten dira.

IM: Oso ondo. Orain zure egunerokotasuna pixka bat ulertuta... nola iritsi zinen honaino? Zein izan da baserriarekin izan duzun lotura eta zure ibilbide baserri munduari lotuta?

JG: Nire kasuan, ni berez nafarra naiz, Lizarraldekoa. Gure familia nekazaritzara dedikatzen da, beste diru-sarrerara batzuk ere badaude, baina gure etxean adibidez ardogintzara dedikatzen dira. Ardoa ekoizten dugu, mahatsa eta gero ardoa. Hona etortzeko arrazoia izan zen euskara ikastea. Hasi nintzen euskara ikasten unibertsitatara joan nintzenean, baina nahiko motel. Iritsi zen momentu bat ondo ikasi nahi nuela, euskaraz bizitzeko mun ikasi nahi nuela euskaraz. Orduan ba hona etorri nintzen euskara ikastera, eta euskararekin lotuta baita ere baserri mundua.

IM: Orduan esan genezake badaukazula landa eremuko jatorria, baina hemen landa bizitzeko beste modu bat bizi duzula.

JG: Beste modu bat da bai.

IM: Nola erabaki zenuen landa edo baserria zure ogibide bihurtzea? Egon ahal zen momentu garrantzitsuren bat erabaki hau hartzeko garaian? Honek ba al du zentzu politikorik?

JG: Bai, nik uste dut baietz. Ni hona etorri nintzenean, esan bezala, hasieran euskara ikastera, baina hasi nintzen lan batzuk egiten. Azkenean, lanean hasi nintzen lanbide finko batean eta hemen bikotea aurkitu nuen. Hemen bizitza erabaki nuen baina hasieran ez nuen nire ordainsaria baserritik ateratzen. Hainbat lan egiten nituen baserrian baina kanpoan egiten nuen lan. Garai hartan esnea ez genuen etxean transformatzen. Esnea ekoizten genuen, esne-behiak geneuzka, bolumena antzeko zen, baina zentral bati industrializatzen zitzaion esnea. Baina, arrazoi desberdinengatik, gazta guk egitea erabaki genuen, esnea guk transformatzea eta gazta horiek guk saltzea. Orduan hemengo bolumena handitu egin zen. Hori izan zen arrazoi inportanteenetarikoak erabakia hartzeko. Erabaki nuen: hemengo lan bolumenarekin proiektuak beste dimentsio bat hartu zuen eta indarra eta inplikazioa beharrezkoa zen, ezin nintzen kanpoan eta barrun ibili, erdizka. Kanpoko lanak utzi eta baserriko lanbidean erabat zentratzea erabaki nuen.

IM: Baserriari lotuta daramatzazun urte hauetan, zure kasuan nekazaritza eta abletzaintza munduari lotuta bizitza guztian zehar, baserria aldatu egin da. Nola igarri duzu zuk aldaketa hori? Zer aldaketa eman direla esango zenuke?

JG: Bueno, hasteko, baserri asko desagertu egin dira, hori da lehenengo aldaketa. Garai batean... badaude datuak, erakusten dutenak zenbat lanpostu galdu diren lehenengo sektorean eta baserri munduan eta ikaragarria da. Beraz, lehenengo aldaketa da produkzioa gutxitu egin dela, baserri kopurua gutxitu da eta produkzioa ere bai. Hori da aldaketa potente bat. Eta gero, produzitzeko modua ere aldatu da garai batetik hona. Alde batetik, kimikoak sartu direlako, produzitzeko moduan asko primatu delako kantitate handiak produzitzea. Horretarako, behar diren lehengaiak kanpotik ekartzen dira eta orduan produzitzeko sistema asko industrializatu da eta asko aldatu da. Mantentze da oraindik beste eredu bateko produktua, beste era batean, baina orokorrean azpi sektore gehienetan aldaketa potentea egon da.

IM: Eta honek zer eragin izan du baserritarra izateko moduan? Nola aldatu da baserritarrak baserria bizitzeko modua?

JG: Gizartea bera ere asko aldatu da ez? Gizartea orokorrean asko urundu da naturatik. Gure sistema moderno honetan sistema kapitalista bizi batean bizi gara, globalizatua, orduan kontsumo eta produkzio ereduak oso intentsiboak dira eta asko urundu gara naturatik. Baserrian hori ez da gertatzen naturan bizi garelako baina produzitzeko era bai urundu da natuarren zikloetatil. Hori bai. Eta horrek nahigabe baserriarrangan badauka bere eragina. Iruditzen zait baserriko lanak ez daudela duinduta, orokorrean. Askotan aldarrikatzen beste sektore batzuetan zeintzuk izan beharko lirateken lan baldintzak, eta baserri mundutik ikusten duzu hori ikaragarri urruti, beste dimentsio bateko aldarrikapenak dira. Beharbada gaur egun estuago sentitzen gara baserritarrok gizartearengandik urundu egin garelako. Garai batean baserritarra izatea zen ba bueno, baserritar gehiago zeuden, familia guztietan baserritarrak zeuden... eta gaur egun da zerbait berezia bezala. GUtxiago eta

urrutiago. Orduan alde horretatik iruditzen zait baserriarren irudi hori eta itzal hori pues itzaltzen joan dela pixkat, eta urrutiratzen ere bai. Eta hori ere nabaritzen da gazteak sartzeko garaian, ez dago erreferentzialtasunik.

IM: Nola uste duzu ikusten zaituztela gizarteak kanpotik? Askotan baserri munduaren inguruan egiten dugun idealizaziotik aparte, zer konpromezu du gizarteak baserriarekin?

JG: Nik uste dut askotan ez dagoela hori zentralidadean. Orokorrean, elikadura eta elikagaiak ekoitzi eta produzitzeko sistemak eta zer ondorio dauzkan hemen, beste lurraldeetan, naturan... hori ez dago debate sozialean, politikoan zer esanik ez, ez dago debateetan. Orduan, beti urruti ikusten da orokorrean. Distantzia bat dago. Paseatzera joateko edo eskalatzera joateko, segun zertara, badago nahi bat naturarengana gerturatzeko. Baina natura beste ikuspegi horretatik, elikagaiak sortu behar diren naturatik, errekursoak kudeatu behar dituen naturatik... hori dena gaur egungo gizartetik urrun geratu dira.

IM: Azkenean nolabait kontsumo ereduak ere aldatu dira, ezta?

JG: Bai kontsumitzeko ereduak erabat aldatu da. Orain, egia esan, azkeneko urte gutxiotan debatera gero eta gehiago ekartzen ari da gaia eta asko dago aldatzeko. Baina gero eta gehiago entzuten da horrekiko ardura, horrekiko beste begirada bat. Baina bai, gaur egungo kontsumo ereduarekin dena kontsumo, bota, erreparatu gabe nola ekoitzi den produktu hori, nondik datorren, zer ondorio, zer albokalte dauzkan, benetan zenbat kostatzen duen hori egitea, ez pagatzen duguna, baizik eta zenbat kontatzen duen... horri buruzko debate gutxi dago. Gero eta gehiago igual e? Baina gutxi.

IM: Baina baserriak ere badoa baserria birpentsatzen ezta? Produkzio ekologikoa sartzeko, Biziola bezalako produktuak garatzen... hor ere ikusten da aldaketa ez?

JG: Bai, berez mantendu da. Nik hemen ezagutu dudana etorri nintzenetik, beti mantendu da korrante bat naturaren gertutasun horri eutsi nahi ziona. Ekoizpen ekologikoaren bidez, agroekologiaren bidez... hori beti mantendu da. Garai bateko baserriak denak ziuren ekologikoak ez? Beste kontu bat da hori aldatu egin zela eta diruz asko lagundu dela hori aldaketa hori emateko. Produzitzean produkzioa areagotzeko eta ez hainbeste kalitatea edo naturaren zaintza. Bideratu zitekeen horretara ez? Baina ez da gertatu eta aldaketa maila handi batean eman da. Baina beti mantendu da eredu bat eutsi ahal izateko, ez? Eta gaur egun ere hor dago eta esango nuke igual errekonozimendu zabalago bat duela gaur egun. Baita ere kontestuagatik: aldaketa klimatikoa dela, gero eta agerikoagoa da baliabideak mugatuak direla eta ezin dugula ez horrela kontsumitu eta ez produzitu. Denok

konturatzen gara horretaz eta beste bide alternatibo batzuk jorratu nahi ditugu etorkizunari eusteko.

IM: Honi lotuta, zuen webgunean ikusi genuen baserrira bisita gidatuak egiten dituzuela. Orduan kurioa iruditu zitzaidan gu lgartubeiti baserri museotik, baserri bilakatu den museotik, zurekin topatzea. Turismo bilakatu dugu baserria baita ere?

JG: Bueno, bisita gidatu asko ez ditugu egiten. Baina tarteka beti etortzen da talderen bat, bai. Nik uste dut landa eremua garai batean bere motor ekonomikoa elikagaiak sortzea baldin bazen, gaur egun hori asko aldatu da. Horrek pisu handia galdu du eta orduan berriz ere bilatu da beste irtenbide bat. Turismoa izan daiteke. Gainera, hirian bizi baldin bazara, bada polita asteburua turismo egitera joatea landa eremura. Parte hori interesgarria izan daiteke, baina lurraren potentzia elikagaia sortzea da. Beste kontua bat da nola sortu behar ditugun elikagai horiek, zer ereduraen bidez, eta zeinek sortu behar dituen. Zenbat eta baserriar gehiago, hobeto. Eta zenbat eta iraunkorrago, hobeto. Hori ikustea askoz interesgarriagoa da hutsik dagoen landa eremua ikustea baino. Ikasi eta gerturatu behar da. Elkarlan bat ere bai, ez bakarrik eskaparate huts bat, gero eta hutsago dagoen eskaparate bat ikustera joatea.

IM: Lehen instituzio politikoek utzikeria aipatu duzu... Biziola bezalako proiektu autogestionatuak izan daitezke honi erantzuna emateko irtenbide bat?

JG: Bai, hor gauza askotan bezala uste dut bi plano daudela: bat da norbanakoa eta indibidualki egin dezakeguna eta beste bat da instituzionalki bideratu daitekeena. Eta beti gure esku, norbanakoen esku bada zer kontsumitu. Irakurtzea zer dagoen etiketan, enteratzea nola sortu den, eta saiartzea elikagaiak beste bide batetik lortzen. Hori norbanakoen esku badago, eta komunitateen esku ere. Zenbat eta proiektu gehiago, gizarte bezala aberasten gara. Adibideak beti egon dira, eta orain ere ugaritzen baldin badira, ba ongi etorriak. Beste kontu bat da benetan era orokor antolatuta baten gauzak aldatzeko, hor ya instituzioen papera behar beharrezkoa da.

IM: Lan et bizimodu duinari buruz ere hitz egin duzu lehen... zer litzateke gaur egungo baserriarraren bizimodu eta lan duina?

JG: Ba, bueno, nik adibidez faltan botatzen dut denbora gehiago izatea lanetik haratago. Baserrian beti daukazu lan bat egiteko, beti. Igual gaixotzen zara eta hala ere lan hori egin behar duzu. Edo abduakazu plan bat berezia dena, eta egun horretan bat-batean ezin duzu lana daukazulako. Hor aldaketa sakonagoa edo partzialagoa izan daiteke... orokorrean lan baldintzak duintzeko garrantzitsua da jendeak lan hori duina dela perzibitzea. Eta seguraski horrela beste modu batean ordainduko litzateke, kontsumituko litzateke, beste modu batera parte hartuko litzateke... eta denak hobeto funtzionatuko luke. Instituzioen aldetik badaude beste

zerbitzu batzuk beste lurralde batzuetan garatuago daudenak, ordezkatzeko aukerak, beste era batean baserriko lan baldintzak hobetzeko.

IM: Beraz oinarrizkoena gizarteak baserriko lana lan duin moduan ikustea litzateke.

JG: Bai, nik uste dut egiten den lana askotan perzibitzen dela lanbide bat daukazu, eta hortik soldata bata ateratzen duzu eta zure aukera izan da hori egitea. Hori hala da. Baina sektore estrategikoa den heinean, behar-beharrezkoa da, eta orduan denon ardura da sektore horretan dauden lan baldintzak egokiak izatea jendea sartu ahal izateko. Bestela jendea ez da animatuko. Eta hor gure kontsumo proiektu berriekin gauza asko egin daitezkeela zama arintzeko. Gero baserritarren aukera eta ardura ere bada, eta hor gauza desberdinak daude.

IM: Genero auzian sartuko gara orain. Askotan baserriaren historia kontatzerako garaian, erreferente nagusi batzuetaz hitz egiten da: maiorazgoa, etxeko jauna eta ebre baserriko lana, andrearen zaindaria lana... horretara mugatu daiteke emakumeak baserriaren historian izan duen garrantzia?

JG: Nik uste dut denon irudimenean dagoela baserriaren ardatz inportanteetariko bat beti emakumea izan dela, edozein baserritan. Eta emakumeen papera arlo produktiboan erabat presente egon da, gauza guztietan. Eta arlo erreproduktiboan, dudarik gabe, hor banaketa gutxiago eman da. Emakumea arlo guztietan egon da. Baserriaren biziraupenaren atzean emakumea dago.

IM: Eta azken hamarkada hauetan, 30-40 urte hauetan, badaude gero eta emakume gehiago erabaki dutena baserri munduan bizitzea eta bizimodu honi heltzea. Aipatu dugun baserriaren eraldaketa honetan, zer nolako papera izan du emakumeak, bilakaera honetan?

JG: Orain dela ez asko irakurri nuen, Hazik ateratako txosten batean, emakumearen pisua lehen sektore profesionalean aurkeztu zuen artikulu bat. Berrito ere lehen baino txikiagoa da. Horrek zer esan nahi du? Ba sektorea profesionalizatu den heinean, emakumea ateratzen joan dela baserrietik. Aldiz, beste eredu agroekologikoago batean, hor emakumeen presentzia altuagoa da. Orduan, nire iritziz, nik etorkizuna irudikatzen dut eredu produktibo eta kontsumokoa diferente bat izan behar dela munduan justizia sozial gehiago nahi badugu. Eta baserria hor sartu behar da. Emakumeen papera askoz indartsuagoa izan behar da, eta horrela izateko eredu produktiboa ere aldatu egin behar da. Askoz gertuago geratzen da eredu agroekologikoa emakumeengandik, eredu industrial baina. Askoz errazagoa da, nire iritziz, zaintza erdigunean baldin badago, dimentsioa ere giza neurrikoa, pertsonen neurrikoa baldin bada. Nik uste guregandik askoz gertuago dagoela eredu hori. Orduan nik etorkizuna eredu horren bitartez irudikatzen dut, bai produzitzeko garaian bai emakumearen presentzia bermatzeko garaian.

IM: Zer uste duzu eman diola mugimendu feministak baserriari? Eta baserriko emakumeek mugimendu feministari?

JG: Ez dakit orokorrean bi mugimendu horiek oso lotuta egon diren, orokorrean. Lehen esan duguna: baserri gero etavgutxiago dauden heinean, gizartean pisu gutxiago dute, eta baserriko errealitatea mugimendu desberdinetan gero eta gutxiago ikusten da. Errealitate hori urrutiago geratzen zaigu. Emakumeen kasuan, zentzu horretan. Seguraski mugimendu feministak beste sektore batzuk haintzat hartzen dituztela emakume baserritarra baino gu urrutiago geratzen garelako. Hori agian arlo askotan gertatu da. Baserria asko aldatu da eta beti oso dinamikoa da. EMaten du ezetz, baina aldaketa potenteak eman dira. Eta hor seguraski gutxi aldatu dena da emakumeen rola etxe barruan, esango nuke. Baina bueno, horretan gabilta. Eta bai, nik uste dut feminismoa baserrian sartu behar dela, eta gizartean agroekologiaren perspektiba ere sartu behar dela. Mugimendu feministan agroekologiaren ikuspuntua sartu behar da, behintzat horretaz hitz egin eta zentralitatea eman behar zaio. Beharrezkoa da bi mugimendu ohrien arteko elkarlana.

IM: Mugimendu feministan agian asko hitz egiten da zaintzak erdigunera eramateaz baina agian baserria bezalako eszenatokietan gehiegi erreparatu gabe.

JG: Nire iritziz emakumeen askatasuna lortu nahi baldin bada maila global batean emakume baserritarren pisua oso inportantea da. Euskal Herrian ez, baino mundu mailan bai. Orduan perspektiba horretatik hitz egin behar da. Askapena etorriko da emakumeengana eredu produktibo hori ere aldatzen baldin bada.

IM: Ixteko, nola ikusten duzu etorkizuneko baserria eta etorkizuneko emakume baserritarra?

JG: Esan bezala, nik etorkizuneko baserria agroekologikoa ikusten dut, gizartea ere. Beste eredu batera joan behar dugu bestela ez da posible izango, ez da denontzat izango. Eta emakume baserritarra ikusten dut arlo guztietan erabat inplikaturatuta, eta paper aktibo batean, historian izan duen bezala, besteak errespetatuz.